

## **ZARAUTZ / Gaur, Haur Liburuaren Eguna ospatuko dute**

**Sanz Eneak egun honekin bat egin du eta haurrentzako ipuin kontaketa antolatu du arratsalderako**

A. Larrañaga

Gaur ospatuko da mundu osoan zehar Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta ekimen horrekin bat egingo du Zarauzko San Enea liburutegiak.

Zarauzko haurrek egun berezi honetan parte hartu dezaten ipuin kontaketa antolatu dute gaur arratsalderako. 17.30ean jarri dute hitzordua eta bertan Pello Añorga idazleak ipuinak kontatuko dizkie haurrei. Jarraian, parte hartzen duten haur guztien artean opariak banatuko dituzte liburutegian.

### **Liburuaren Eguna apirilaren 23an**

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna Hans Christian Andersen haur literaturako idazlearen jaiotza eguna ospatzeko egiten da.

Bestalde, apirilaren 23an, Liburuaren Eguna ospatuko da Miguel de Cervantes, William Shakespeare eta Garcilaso de la Vega idazleen heriotza eguna ospatzeko eta San Eneak hainbat ekimen antolatu du egun horretarako ere.